



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: *Gizarte-prestazio publikoen kontsulta (GSIN)*



Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eskaintzen du gizarte-prestazio publikoak kontsultarako web-zerbitzu hau, eta BFAren elkarreragingarritasunaren-plataforman jarrita dago; haren bidez, herritar batek jasotako gizarte-prestazio publikoei buruzko datuak kontsultatu daitezke.

Zerbitzuak herritar batek jasotzen dituen prestazioei buruzko informazioa ematen du; kontsulta egiten den uneko informazioa da.

Kontsultatu nahi den titularrak une honetan alta emanda dauzkan prestazioei buruzko informazioa lortzen da, bai eta beste 20 prestaziori buruzko informazioa ere (aldi baterako ezintasunaren prestazioak eta/edo amatasun-zein aitatasun-prestazioak). Guztira, ez dira 35 prestazio baino gehiago izango.

Zerbitzuak eskatutako datuak:

- **Dokumentu mota:** Kontsultatu nahi den titularraren dokumentu-mota (NANA, AIZa edo pasaporte).
- **Dokumentu-zenbakia:** Titularraren dokumentuaren zk.
- **Izena:** Kontsultatu nahi den titularraren izena.
- **1. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren lehen abizena.
- **2. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren bigarren abizena.

Kontsultatutako titularrari buruzko informazio hau itzuliko du zerbitzuak:

- **Pentsiodunaren identifikazio-datuak:**
 - Erantzunaren prozesuaren eguna.
 - Kontsultatutako pertsonaren izen-abizenak.
- **Pentsiodunaren pentsioen zerrenda.** Datua hauek itzuliko dira titular den pentsio bakoitzeko:
 - Prestazioaren kodea eta deskripzioa, betiere herritarraren beren-beregiko adostasuna badago. Adostasuna legez bada, ez da ezer itzuliko kodean, eta deskripzio gisa "PRESTAZIOA" itzuliko da beti.

Kodea	Literala	Deskripzioa
A2	FAMILIA-BABESA	
J0	ERRETIROA, EZINTASUN IRAUNKORRAREN ONDORIOZ	Ezintasun iraunkorraren ondoriozko erretiroa
J1	ERRETIROA, EZINTASUN ABSOLUTUAREN ONDORIOZ	
J2	ERRETIROA, EZINTASUN OSOAREN ONDORIOZ	
J3	ERRETIROA, EZINTASUN PARTZIALAREN	



	ONDORIOZ	
J4	ERRETIROA, BALIAEZINTASUN HANDIAREN ONDORIOZ	
I6	ALDI BATERAKO EZINTASUNA, KONTING. ARRUNTAK	Kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasuna
I7	ALDI BATERAKO EZINTASUNA, KONT. PROFESIONALAK	Kontingentzia profesionalen ondoriozko aldi baterako ezintasuna
M6	AMATASUNA	Amatasuna
P6	AITATASUNA	Aitatasuna
10	EZINTASUN IRAUNKORRA	Ezintasun iraunkorra
11	EZINTASUN ABSOLUTUA	
12	EZINTASUN OSOA	
13	EZINTASUN PARTZIALA	
14	BALIAEZINTASUN HANDIA	
19	DESGAITASUNA	
20	ERRETIROA	Erretiroa
28	ERRETIROA, EZINTASUNAREN ONDORIOZ	Ezintasunaren ondoriozko erretiroa
30	ALARGUNTASUNA	Alarguntasuna
40	ZURZTASUNA	Zurztasuna
50	SENIDEEN ALDEKO PRESTAZIOA	Langile edo pentsiodun bat hiltzen denean, Gizarte Segurantzaren sistemak haren senide jakin batzuen alde ezarritako prestazioa.



60	ESTATUTUEN HOBEKUNTZA	Antzineko lan-sektore edo mutualitateen prestazioak, estatutuetan edo enpresa-hitzarmentan ezarrita daudenak.
69	FP, PENSIO OSAGARRIA	Norberaren kargu den seme-alaba edo norberaren kargu harturiko adingabearengatiko diru-esleipena, eme-alabak 100eko 65ko desgaitasuna edo handiagoa izategatik.
71	APARTEKO LAGUNTZA, MIGIL	Minusbaliatuen gizarte-integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen sorospenen laguntza osagarriak, Andaluziako Juntako Berdintasun eta Gizarte Ongizaterako Sailak onartuak.
72	GUTX. SARRE. BERM. SOROSP.	Gutxieneko sarrerren bermerako sorospena, Minusbaliatuen gizarte-integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarria.
73	BESTE PERT. LAGUNTZ. SOROSP.	Beste pertsona baten laguntza jasotzeko sorospena, Minusbaliatuen gizarte-integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarria.
74	MUGI. GARRA. GASTUETARAKO SOROSP.	Mugikortasun- eta garraio-gastuetarako sorospena, Minusbaliatuen gizarte-integrazioari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarria.
79	LANGABE. SOROSP. > 52/REASS	52 urtez gorako langileentzako langabezia-sorospena, langileak kasu bakoitzean erretiro-pentsioa kobratzeko eskubidea izateko eskatzen den adin



		arrunta bete arte jasotzen duena.
7A	GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA	
7R	GIZARTERATZEKO ERRENTA	
89	ADINGABEAK, GERRA DELA ETA	Aurrekoetz bestelako prestazioak, sisteman ez dauden entitateek ordaintzen dituztenak; identifikazio generiko honen bidez adierazten dira gako espezifikoetara egokitzen ez direlako (ez luke honelakorik egon behar).
99	BESTE KOLEKTIBO BATZUK	

- **Prestazio mota.** Hauek izan daitezke balioak:
 - "BAI": KOTIZAZIOPEKOA
 - "EZ": KOTIZAZIO GABEA
 - "Hutsik": Kotizaziopekoea den ala ez jakiten ez denean
- **Entitate kudeatzailearen edo prestazioa ordaintzen duen entitatearen gakoa eta izena.**
 - Zenbateko gordina: prestazioaren zenbatekoa, kenkari guztien zenbatekoak sartuta, bai eta PFEZarena ere (hala badagokio).
Baliteke zenbateko gordina zero duten prestazioak egotea.
 - Zenbateko garbia: prestazioaren zenbatekoa, kenkari guztiak aplikatuta eta PFEZaren zenbatekoa sartuta (hala badagokio).
Baliteke zenbateko gordina zero duten prestazioak egotea, zenbateko gordina zero izateagatik edo dagozkion kenkariak aplikatuta emaitza zero izateagatik.
 - Prestazioari urte batean zenbat ordainketa dagozkion.
 - Prestazioak noiztik dituen ondorio ekonomikoak.
 - Eskubidearen amaiera-eguna.
 - Egitate sorrarazlearen data.
 - Eguneko oinarri arautzailea.
 - Ordainketa mota.



BERTSIO KONTROLA

V.00	Bertsio Originala	2017/10/25
------	-------------------	------------